

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 462/2020 Foru Dekretua, abenduaren 21koa. Atzera egitea xederik gabeko erakundeei eta entitateei, gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuak garatzeko xedez, dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko 2020ko deialdia

Abenduaren 30eko 547/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen irabazteko xederik gabeko erakundeei eta entitateei, gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuak garatzeko xedez, dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko 2020ko deialdia.

Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuen 2020ko martxoaren 11n. Martxoaren 14an, 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zen lurralde nazional guztian.

Alarma egoeraren deklarazioak administrazio prozedurak hainbat hilabetez etetea eragin du. Gainera, laguntza horren 2019ko deialdian, zenbait erakundek proiektua amaitzeko atzerapena eskatu dute, bai eta emandako dirulaguntzen bigarren ordainketa izapidetu ahal izateko beharrezkoa den dokumentazioaren justifikazioa aurkeztu ahal izateko ere. Aldagai horiek guztiek zaildu egin dute 2020ko deialdia izapidetzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du 93. artikuluan: "Ofizios hasitako prozeduretan, Administrazioak atzera egin ahal izango du, arrazoituta, legeetan aurreikusitako kasuetan eta betekizunekin"

Ondorioz, deialdi hori atzera botatzen da.

Horregatik, eta Diputatu Nagusi gisa dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Atzera egitea Diputatu Nagusiaren abenduaren 30eko 547/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen irabazteko xederik gabeko erakundeei eta entitateei, gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuak garatzeko xedez, dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko 2020ko deialdia.

Bigarrena. Baliogabetzen da Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako aurrekontuko 02.5.01 93.00 4.8.1.00.03 partidari dagokion gastuen baimena (zorpekin erreferentzia: 20.1.20 105-7)

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta jakinaraztea gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuak garatzeko 2020ko dirulaguntzak eskatu dituzten irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakunde eskatzaileei.

Laugarrena. Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio bidea. Bere aurka berraztertze aukerako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, hilabete epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, zuzen-zuzenean aurkaratu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabete epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

AINHOA CAMPO ARENAZA